

Bergaran, 2023ko abenduaren 20 an ondorengoak

BILDU DIRA

Alde batetik, Gorka Artola Alberdi jauna, Bergarako Alkate-Udalburu den aldetik eta Bergarako Udalaren ordezkartzan.

Bestetik, Rosa Maria Iglesias Berasategui, adinez nagusia, 15916009D NAN zenbakiduna, eta G20047569 IFK duen ASPACE GIPUZKOA elkartearen lehendakaria dena eta elkarte honen izenean.

Bi aldeek elkar behartzeko ahalmena aitortu eta

ADIERAZI DUTE

1. Bergarako udala dela Ibaiondo 9ko eraikinaren jabea dela eta 2021eko otsailaren 4an sinatutako hitzarmen baten bitartez Aspace Gipuzkoa elkarteari eraikinaren erabilera lagata duela gehienez ere 10 urtez garun paralisia duten haur eta gaztetxoek ikastetxe moduan erabiltzeko.
2. Aspace Gipuzkoa elkarteak, eraikinean zegoen kalefakziozko galdarak arazoak ematen zituela kontuan hartuta, galdara hori aerotermiazko beste batengatik aldatzeko baimena eskatu duela eta baita instalazio horrekin eraikin kontra jabari publikoko 1,28 m2 okupatzeko ere, eta horrek behartzen duela indarrean dagoen hitzarmenari aldaketa bat egitea jabari publikoko 1,28 m2-ren emakida ere bertan sartzeko.

Hori dela eta, bi aldeek 2021eko otsailaren 4an sinatutako hitzarmena aldatzea adostu dute klausula hauen bitartez:

KLAUSULAK

LEHENENGOA.- 2021eko otsailaren 4an sinatutako hitzarmenaren lehenengo klausula aldatzen da honela utziz:

LEHENENGOA.- Bergarako Udalak Ibaiondo 9ko lokala erabiltzeko baimena ematen dio ASPACE GIPUZKOA elkarteari eta baita aerotermiazko instalazioarekin jabari publikoko 1,28 m2 okupatzeko inolako errentarik edo bestelakorik ordaindu gabe eta honek onartu du. Aerotermiazko instalazioan okupatzen duten jabari publikoaren zatia hitzarmen honi erantsitako planoan zehazten da.

BIGARRENA.- Jarritako aerotermiazko instalazioa eta eraikinean egindako beste edozein inbertsio eraikinaren onurarako geratuko dira eta udalak ez du ordaintzeko konpromisorik hartzen

HIRUGARRENA.- Dokumentu honetan zehaztuta ez dagoenean indarrean jarraituko du 2021eko otsailaren 4an sinatutako hitzarmenak.

Eta horrela jasota gera dadin, dokumentu honetako edukiarekin adostasuna azalduz eta leial betetzeko konpromisoa hartuta goian aipatutako toki eta egunean hirukoiztuta sinatzen dute.

Gorka Artola Alberdi

Bergarako alkatea



Rosa Maria Iglesias Berasategui

ASPACE GIPUZKOA elkartearen lehendakaria

